



2018KO URRIAREN 2KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urriaren bian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman eta gai zerrendan ez dagoen puntu bat presazko iaeraz sartzea proposatzen du. 6 H.J.A. -Iturgaitzaga- guneko PR-9 eta PR-10 lursail erai-kigarrien besterentzearen esleipena hain zuzen ere. Osoko Bilkurak, aho batez, ontzat ematen du proposamena.

I.- ORDENANTZA FISKALAK.-

Datorren urteari begira ordenantza fiskaletan, orokorrean, 2017ko abuztutik 2018ko abuztura K.P.I.k (Kontsumoko Prezioen Indizea) izan duen aldaketaren pareko igoera aplikatzea planteatzen da, hau da, %2,2ko igoera. Honen salbuespen gisa zabor bilketa %5 igotzea proposatzen da eta hiri lurren balio gehitzeari buruzko zergaren karga tasa %10etik %8ra jaitea.


Honez gain, ordenantzen testuetan hainbat aldaketa jasotzen dira, aipagarrienak mahai eta eserlekuekin herri bidea okupatzeagatik tasan, unitate bakoitza mahai bat eta lau eserleku hartuko dira eta bakoitzagatik ordainduko dena kopuru finko bat izango da; herri bidera irekita dauden finantza entitateen kutxazain automatikoak, eta hauek aurreko alde lerrotik atzeratuta dauden kasuetan, aurreko alde lerrotik 80 zm. baino gutxiagora daudenean bakarrik likidatuko da tasa; udal argitalpenetan publizitateagatik prezio publikoan beste neurri bat sartu da (modulu bakoitza); eta hainbat tasen kopuruetan zenbatekoak biribildu egin dira kudeaketa erraztearren.

Hau guztia bere espedientean dagoen dokumentuan jasotzen den moduan.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du, nahiz eta gauza batzuekin aurka ez egon, beste batzuekin baietz eta orokorrean ordenantza fiskalen aldaketa planteamendu hau aurreko urteetako enildo beretik doala eta ezezkoa emango diotela.

Alkateak erantzuten dio horrela izatea bidezkoa dela, lau urteko plangintza batean doalako.

Gaia bozketan jartzen da eta osoko bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 6 botoz (EH Bildu) honako erabakiak hartzen ditu:



1. Aurkeztu den proposamenean eta bere espedienteen jasotzen den dokumentazioaren arabera ordenantza fiskalen aldaketa, haserako izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onarpena behin betikoa bihurtzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

II.- TAXIEN HIRI TARIFAK.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2019 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidetu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreraren azterketa bidali dute baita ere.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2018)					
1 TARIFA * (astegun eta egunezkoa)			2 TARIFA ** (gauetzko eta jaiegunetako)		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
3,5141	1,1001	21,0129	3,5141	1,7546	33,0253

Hau guztia kontuan izanda, gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hauek hartzen ditu:

- 1.- 2019 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA (2019)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
3,5949	1,1254	21,4962	3,5949	1,7949	33,7849

* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da

** Tarifa hau egun orotan 22:00etatik 7:00etara eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara eta halaber larunbatetan eta abenduaren 24 eta 31n aplikatuko da.



- 2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidetu dezan.

III.- HIRIGOIEN 4-12 BIDEAREN URBANIZAZIOA EGITEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA.-

Foru sareko GI-3560 errepidearen amaierako zatia Lazkaoko erdigunean barrena doa zeharbide bat osatuz, eta 3,700 eta 3,900 kilometro puntuen artean Mikelar kalearekin bat dator. Norabide bakarreko kalea da, Olaberriarantz igotzeko.

3,900 eta 4,050 kilometro puntuen artean, GI-3560 errepidea Hirigoien kaleko 4-12 tartearekin bat dator. Gaur egun bi norabideko kalea da.

Udalak, Hirigoien kaleko tarte hori, erdigunerantz norabide bakarrekoa bihur dadin nahi du, udalerriko trafiko planean aurreikusten den bezala, honela erdigunea oinezkoentzat bihurtzeko trafikoari ixtea ahalbidetuz.

Asmo horrekin "Lazkaoko Hirigoien 4-12 kalearen bidea urbanizatzeko proiektua" idatzi da eta proiektuaren obren aurrekontua 125.167,20 € da.

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lazkaoko Udalaren artean proiektu honek jasotzen dituen lanak gauzatu eta finantzatzeko lankidetzaz hitzarmena izenpetzea planteatzen da.

Lankidetzaz hitzarmen honekin Gipuzkoako Foru Aldundiak gehienez ere 108.701,97 €tan finantzatuko luke eta beste alde batetik, eta behin lanak amaitu ondoren, titulartasunen erregularizazioa egingo litzateke era honetan: GI-3560 errepidearen 3,700 eta 4,050 puntu kilometrikoen arteko tarte (Mikelar eta Hirigoien 4-12 kaleak) udal titularitatekoa izatera pasako da eta aldiz Jose Lasako gutxi gora behera 100 metro, Mikelar kaleko biribila (3,700 puntu kilometrikoa) eta GI-3560 4,050 puntu kilometrikoak lotzen dituen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasuneko izatera pasako da.


Hau guztia honela, eta hirigintza obra eta zerbitzuen batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Akordio honen aurrekarietan adierazten den Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lazkaoko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea.
- 2.- Lazkaoko Udalaren izenean lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu dezan alkateari ahalmena ematea.

IV.- 6 H.J.A. -ITURGAITZAGA- GUNEKO PR-9 ETA PR-10 LURSAIL ERAIKIGARRIEN BETERENTZEAREN ESLEIPENA.-

Udal osoko bilkurak, 2018ko maiatzaren 29an egindako bilkuran, 6 H.J.A. -Iturgaitzagako- PR9 eta PR10 lursailen besterentzea lizitazioa ateratzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazioaren deialdia udalaren kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2018-07-20an eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, proposamen bakarra aurkeztu zen, Miguel Imaz S.A.U.k aurkeztutakoa.



Proposamenean eskaintzen den prezioa 4.508.000,00 €koa da, hau da, lizitazio oinarrizko prezioa %0,559an handituta.

Proposamena ontzat eman zen eta bakarra izanik, kontratazio mahaiak, lehen sailkatu bezala, esleipena bere alde egiteko egin beharrekoak egin zitzan errekerimendua bidali zion Miguel Imaz S.A.U.ri.

Miguel Imaz S.A.U.k behin betiko bermea hala nola esleipena egin ahal izateko gainantzeko dokumentazioa ere aurkeztu ditu.

Hau guztia honela, osoko bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- 6 H.J.A. -Iturgaitzagako- PR9 eta PR10 lursail eraikigarrien besterentzearen esleipena Miguel Imaz S.A.U.ri egitea.

Esleipenaren prezioa LAU MILIOI BOSTEHUN ETA ZORTZI MILA (4.508.000,00 €) da, Miguel Imaz S.A.U.k bere proposamenean egindako eskaintzari jarraiki. Esleitzailleak prezio honi dagokion BEZa (%21) ordaindu beharko du baita ere, hau da, BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA SEI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEI EURO (946.680,00 €). Lursailen balorazioari buruz espedientearen jasotzen diren txosten teknikoak kontuan izanda, lursail bakoitzaren esleipen prezioa lursailka honako hau da: PR9aren esleipen prezioa 3.651.441,00 €; PR10aren esleipen prezioa 856.559,00 €.

2.- Alkateari ahalmena ematea udalaren izenean akordio honekin lotutako gainantzeko jarduketa guztiak egin ditzan.

3.- Miguel Imaz S.A.U.ri behin-behineko fidantza itzultzea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak eta zortzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

